



## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Study(H)all webgunea gauzatzeko aditu eta profesional zein enpresa desberdinekin elkarteak ezinbestekoak dira.

Gure enpresak eskeiniko duen produktu edota zerbitzua plataforma digital bat izango denez, ezinbestekoa dugu, web-a sortuko duen norbait izatea. Bi aukera nagusi ditugu mahaigainean aspektu honi dagokionez. Alde batetik, programatzaile partikular edota autonomo bat kontratatzea gure proiektua aurrera eramateko. Bestalde, Arazi enpresa kontratzeko aukera ere badugu. Hezkuntza, komunikazioa eta kudeketekin erlazionatutako proiektuak aurrera eramaten dituen enpresa da. Komunikazioren barruan, web-orrien garapeneko zerbitzua ematen dute.

Gure plataformaren lehenengo atalean antolakuntza akademikorako tresna bat sortuko dugu, eta horretarako funtsezkoa da antolakuntzan aditua den pertsona bat aurkitzea. Profesional honek psikologiako eta denbora kudeaketako ikasketak izatea ezinbestekoa da, antolakuntza metodo eraginkor bat planteatzeko. Izan ere produktibotasuna da gure helburuetako bat, baina era berean, ikasleek bete ahal izateko modukoa izatea interesatzen zaigu. Eskuragarria izatea. Hau da, beraien osasun mentala zainduko duena, denbora librea edukitzeko aukerarekin.

Tresnaren bigarren atalari dagokionez, bideoak egiteko aukera eskaini nahi genuke, hau da, streaming bidez ikasteko aukera. Horretarako [Twitch](#) delako dohaineko plataforma erabiliko dugu. Ordaindutako harpidetza sistema du, hala



ere Study(H)all proiektuak eskainitako transmisioak kontsumitzeko edota hauetan parte hartzeko ez da kosturik edo beharrezko harpidetzarik izango.

Streamingeko funtzio honen bidez “Study With Me” delako fenomeno martxan jarri da, online bidez batera ikastea datzana. Horrela bada, ikasleek bakoitza bere lan lekutik zuzenean onlinez konektatu ahal izango dira elkarrekin ikasteko, eta bezeroek plataformak berez dakarren chat sistemaren bidez komunikatzeko aukera izango dute, dudak edota bestelakoak elkarrekin argitu ahal izateko. Fenomeno honetan parte hartzen duen streamerretako bat da Ana Blanca, @AnaBlanchu. Etorkizunean horrelako profilekin bat egin eta hauekin batera lanean jarduteko asmoa ere badugu.

Azkenik, Study(H)all-ek ikasketa zentro reglatu eta baita ez reglatuek eskaintzen dituzten goi-mailako ikasketen inguruko makrokatalogoa sortuko du bertako erabiltzaileentzat. Hezkuntza zentro reglatuen artean unibertsitate publiko zein pribatu eta ikastetxe publiko, pribatu eta kontzertatuen inguruko informazioa egongo da, baita, ez reglatuak deitzen akademiana ere.

Lehenik eta behin, lagungarria litzaiguke ikasketa zentroen makrokatalogoaren, zentroen nota eremuen baita nota kalkulatuzailearen inguruan orientatzaile baten iritzia izatea. Zer iruditzen zaien, lagungarria izango zitzaien bere lanerako, tresnarenbat gehiago faltan botatzen duten, zerbait gaizki egin dagoen... Izan ere, profesional hauek dira ikasleak beraien etorkizuneko ikasketak aukeratzera bideratzen dituztenak. Hori dela eta profesional desberdinen iritziak jakiteko inkesta bat zabalduko genuke gure bezero izan daitezkeen ikastetxe eta hezkuntza zentroetako irakasleei.



Azkenik, unibertsitate eta bestelako hezkuntza zentroak bezero izango diren arren, informazioaren hornitzaile ere badira, beraz, hauekin kontaktuan jarriko ginateke behar ditugun datu horiek eskuratzeko, eta bide batez beraiek duten publizitate ideiak kontrastatzeko. Era honetara, kuota baten truke, unibertsitateak webgunean publizitatea izateko aukera izango dute.

Horretaz gainera gure publizitate propioa egiteko inprenta baten beharra izango genuke, ferietarako standerako lonak, posterrak eta panfletoak edota flyerrak inprimatzeko.

**N2J TALDEA**